

Gure produktua merkatu zabal bati zuzenduta dago, merkatu masiboa izango baita, izan ere, gure produktua mundu guztiarentzat egokia da eta edozein pertsonak erabil dezake. Produktu oso sinplea da, diseinu eta erabilera aldetik erraza, eta bere funtzio nagusia betetzeko sortuta dago. Erabiltzen duen pertsonari segurtasuna ematen dio, eta hori da gure produktuaren balio nagusietako bat. Gainera, prezioari dagokionez, produktu merkea da, edonork eskuratzeko modukoa, kalitatea galdu gabe. Horregatik guztiagatik, erosteko aukera oso ona da, segurtasuna eskaintzen duelako, erabiltzeko oso erraza delako eta ez delako garestia, beste antzeko produktuekin alderatuta.